

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURAREN SAILA

Hezkuntza Zerbitzua

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2019-2020 ikasturtea

2019ko urriaren 25ean egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea — ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2019-2020 ikasturtea —.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespina ematea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2019-2020 ikasturtea.

2019ko abuztuaren 9an argitaratu ziren, ALHAOn, ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzen (14. ildoa) deialdi publikoa — 2019-2020 ikasturtea — eta berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2019ko abuztuaren 9ko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko abenduaren 28an egindako bilkuran onetsi zituen Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2019ko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48004 partidan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21ean hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatzen diren laguntzak onetsi eta ematea bertan adierazten diren ikastetxe eta ikasle onuradunei, 2019-2020 ikasturterako — adierazten den zenbatekoa bakoitzari —, guztira 155.736,00 euro, Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48004 partidaren kontura. Bi zatitan ordainduko da dirulaguntzaren zenbatekoa: lehen ordainketa, 45.224,00 eurokoa, 2019ko udal aurrekontuaren kontura, eta bigarrena, 110.512,00 eurokoa, 2020ko udal aurrekontuaren kontura, baldin eta kreditu egokia eta nahikoa badago.

2. II. eranskinean ageri diren ikastetxe eta ikasleei laguntzak ukatzea, bertan zehazten diren deialdiko betebeharrak betetzen ez dituztenez.

Ebazpen honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte-egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Gasteizen, 2019ko urriaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES

I eranskina: onartutako ikasleak, emandako diru-laguntza eta bi ordaintzen zenbatekoa

Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzaren deialdiaren ebazpena, 2019-2020 ikasturtea							
Ikastetxea	Eskeraak	Onartutako ikasleak			2019-2020 ikasturteko diru-laguntza	2019ko azarotik abendura arteko zenbatekoa	2020ko urtariletik ekainera arteko zenbatekoa
		Bakarkako saloak	Taldeko saloak	Guztira			
Abendaño ikastola HLHI	7	4		4	1.736,00	504,00	1.232,00
Abetxuko ikastola HLHI	5	5		5	2.170,00	630,00	1.540,00
Adurtza ikastola HLHI	14	14		14	6.076,00	1.764,00	4.312,00
Angel Ganivet HLHI	10	10		10	4.340,00	1.260,00	3.080,00
Aranbizkarra ikastola HLHI	26	20		20	8.680,00	2.520,00	6.160,00
Arantzabela ikastola HLHI	13	13		13	5.642,00	1.638,00	4.004,00
Armentia ikastola HLBIHIP	1	1		1	434,00	126,00	308,00
Pedro Ignacio Barrutia ikastola HLHI	13	13		13	5.642,00	1.638,00	4.004,00
Carmelitas Sagrado Corazon HLBIHIP	1	1		1	434,00	126,00	308,00
Divino Maestro HLHI	10	10		10	4.340,00	1.260,00	3.080,00
Calasanz Escolapios HLBIHIP	5	5		5	2.170,00	630,00	1.540,00
Errekabarri HLHI	5	4		4	1.736,00	504,00	1.232,00
Ibaiondo ikastola HLHI	13	13		13	5.642,00	1.638,00	4.004,00
Inmaculada Concepción HLBIHIP	6	6		6	2.604,00	756,00	1.848,00
Judimendi HLHI	10	4	2 (talde bat)	6	2.422,00	704,00	1.718,00
Lakubizkarra HLHI	22	17		17	7.378,00	2.142,00	5.236,00
Landazuri ikastola HLHI	5	5		5	2.170,00	630,00	1.540,00
Antonio López de Guereñu HLHI	5	1	4 (2 talde)	5	1.806,00	526,00	1.280,00
Luis Dorao HLHI	7	6		6	2.604,00	756,00	1.848,00
Luis Elejalde HLHI	6	6		6	2.604,00	756,00	1.848,00
Mariturri HLHI	13	11		11	4.774,00	1.386,00	3.388,00
Nuestra Señora de las Mercedes HLBIHIP	11	11		11	4.774,00	1.386,00	3.388,00
Miguel de Cervantes HLHI	17	17		17	7.378,00	2.142,00	5.236,00
NCLIC HLBIHIP	3	3		3	1.302,00	378,00	924,00
Niño Jesús HLBIHIP	8	8		8	3.472,00	1.008,00	2.464,00
Odon de Apraiz ikastola HLHI	15	14		14	6.076,00	1.764,00	4.312,00
Padre Orbiso HLHI	10	7		7	3.038,00	882,00	2.156,00

Ikastetxea	Eskaerak	Onartutako ikasleak			2019-2020 ikasturteko diru-laguntza	2019ko azarotik abendura arteko zenbatekoa	2020ko urtarilek ekainera arteko zenbatekoa
		Bakarkako saloak	Taldeakako saloak	Guztira			
Presentación de María HLBHIP	5	5		5	2.170,00	630,00	1.540,00
Ramón Bajo HLHI	9	8		8	3.472,00	1.008,00	2.464,00
Salburua HLHI	14	6	8 (3 talde)	14	4.746,00	1.384,00	3.362,00
Samaniego IPI	33	33		33	14.322,00	4.158,00	10.164,00
San Ignacio HLHI	4	4		4	1.736,00	504,00	1.232,00
San Martín HLHI	14	14		14	6.076,00	1.764,00	4.312,00
Santa María de Vitoria HLHI	3	3		3	1.302,00	378,00	924,00
Sansomendi IPI	3	2		2	868,00	252,00	616,00
Tokeder ikastola HLHI	9	9		9	3.906,00	1.134,00	2.772,00
Umandi ikastola HLHI	19	15	4 (2 talde)	19	7.882,00	2.290,00	5.592,00
Urkide HLBHIP	6	6		6	2.604,00	756,00	1.848,00
Zabalana HLHI	12	12		12	5.208,00	1.512,00	3.696,00
Guztira					155.736,00	45.224,00	110.512,00

II eranskina: ez onartutako ikasleak

Ikastetxea	Ez onartutako ikasleak	Ez dagokio DLHko 2.etik gorako mailan egoteagatik eta aurreko deialdiak ez etortzeagatik	Ez dagokio laguntza eskatzen duen hirugarren aldia delako	Ez dagokio ez zuelako Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso 2018-2019 ikasturtean
Abendaño ikastola HLHI	3			3
Aranbizkarra ikastola HLHI	6			6
Errekabarri HLHI	1	1		
Judimendi HLHI	4			4
Lakuabizkarra HLHI	5	5		
Luis Dorao HLHI	1			1
Mariturri HLHI	2		2	
Odon de Apraiz ikastola HLHI	1			1
Padre Orbiso HLHI	3	2		1
Ramón Bajo HLHI	1	1		
Sansomendi IPI	1		1	
Guztira	28	9	3	16